ESKOLAKO GURASO ELKARTEAREN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK
ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES DE LA APYMA PADERBORN



Informazio gehiago eta izen-emateak:
https://www.apymapaderborn.com/extraescolares-2026-2027/

Paderborn LEZKAIRU Colegio Público Ikastetxe Publikoa

Familientzako Informazioa



2026-2027. IKASTURTEA

Adela Bazo kalea,3
31006 Iruñea.
cp.paderborn@educacion.navarra.es
http://cppaderborn.educacion.navarra.es/web/

AURKIBIDEA

- *Agurra*
- *Arauak*
- *Ikastetxearen komunikazio-bideak*
- *Ikasteko eta irakasteko gure modua*
- *EDUCA*
- *Eskola egutegia*
- *Tutoreekin bilerak*
- *Arreta-ordutegiak*
- *Eskolako profesionalak*
- *Paderborn Guraso Elkarteak antolatutako zerbitzuak*
- *Paderborn Guraso Elkarteak antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak.*

Familia agurgarriak:

Poz handiz ematen dizuegu ongietorria CEIP Paderborn-Lezkairu HLHI ikastetxeko 2026-2027 ikasturtean. Aurten, "Hazteko sustraiak eta iristeko adarrak" lelopean elkartuko gara; irudi horrek oinarri sendoa izatearen garrantzia sinbolizatzen du, hortik abiatuta hazi, ikasi eta gero eta urrunago iristeko.

"Hazteko sustraiak eta iristeko adarrak" esaldiak honako hau adierazten du:
Sustraiak: hazteko oinarri sendoa behar dugulako; hots, ingurune abegikorra, zaintza, konfiantza, errespetua eta komunitate bateko kide izatearen sentimendua, non haur bakoitzak seguru eta balioetsia sentitzen den.

Enborra: hazkundea egunero eraikitzen den prozesua delako, gidaritzaren, ahaleginaren, bizikidetza positiboaren, autonomiaren eta ikasle, irakasle zein familien arteko ikaskuntza partekatuaren bidez.

Adarrak: hezkuntzak haurrei horizonteari begiratzen, aukera berriak deskubritzen, norberaren gaitasunak garatzen eta erronka pertsonal zein akademiko berriei aurre egiten laguntzea ere badakarrelako.
Ikastetxeko bizitzan parte aktiboa hartzera, etxean gure balio partekatuak indartzera eta hezkuntza-proiektu baten parte izatera animatzen zaituztegu; proiektu horrek ez du soilik irakastea bilatzen, baizik eta pertsona autonomoak, kritikoak eta solidarioak heztea ere bai.

Eskerrik asko zuen konfiantzagatik eta komunitate honen parte izateagatik. Elkarrekin, esperientzia ahaztezin bihurtuko dugu ikasturte hau.

Adeitasunez,
CEIP PADERBORN-LEZKAIRU HLHI

ZUZENDARITZA TALDEA

ZUZENDARIA: Mikaela Quintana
IKASKETA-BURUA: Maider Uche
IDAZKARIA: Alberto Gómez-Chacón

IRAKASLE EZ DIREN BESTE PROFESIONALAK

ATEZAINAK: Javier Larrea, Alberto Aranaz eta Valentin Vals
ADMINISTRATZAILEA: Belén García
HEZKUNTZA-LAGUNTZA ESPEZIALISTAK: Arantza Laino, Verónica Trevejo, Izaskun Lana, Dolores Zabaleta, Nerea Velasco , Uxue Cárdenas eta David Allue.

JANTOKI ZERBITZUA (GURASO ELKARTEAK ANTOLATUTA)

Arduraduna AUSOLAN: Aintzane Oteiza

ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Ikastetxeko ikasleen gurasoen elkartea da. Ikastetxeko jarduera jakin batzuen antolaketan aktiboki parte- hartzen du, hala nola: Eskola Kontseiluan, goiztiarren haurtzaindegi-zerbitzuan, jantokiaren kudeaketan eta eskolaz kanpoko jarduera osagarriak eskaintzen ditu.

Izena emateko edota eskaintzen diren zerbitzuren bati buruzko informazioa eskatu edo beste edozein kontsultatarako: apymapaderborn@gmail.com eta https://www.apymapaderborn.com/.

GURASO ELKARTEAK ANTOLATUTAKO ZERBITZUAK

- **GOIZTIARREN GELA:** Ikastaroko egun guztietan 07:75etik 9: 00etara.
- **IRAILA, EKAINA ETA OSTIRAL ARRATSALDEKO HAURTZAINDEGIA:** 15:00etatik 16:30era.
- **JANTOKI ZERBITZUA:** urritik- maiatzera 12:50etik 14:50era. Ikasturtean zehar irailean, ekainean eta ostiraletan, berriz, 13:00etatik 14:30era eta 15:00ak arte bila etorri daiteke.

ESKOLAN LAN EGITEN DUTEN PROFESIONALAK

HAUR HEZKUNTZAKO TUTOREAK

3 urte A gela Natalia Mellado	3 urte B gelaMarta Peñalva	
4 urte A gela: Belén Jiménez	4 urte B gela: Virginia Torres	
5 urte A gela: Raquel Pavón	5 urte B gela:Amaya Lipuzcoa	5 urte C gela: María Luri / Yari García

HAUR-HEZKUNTZAKO TUTORIALAK

Haur HezKuntza 3.: Paula Erro	Haur HezKuntza 4.5.: Ane Villanueva

LEHEN HEZKUNTZAKO TUTOREAK

1º A: Virginia Idoate	1º B: Elena Irigoyen	1º C: Laura Esnoz
2º A: Leyre Sola	2º B: Victoria Schwarz	EBO-1: Ainara De la Gracia
3º A: Nuria Torres	3º B: Mishel Bobrovska	3º C: Esperanza Tejedor
4º A: Maite Goya	4º B: Cristian Zubiria	
5º A: Aritz Andía	5º B: Andrea Schofl	5º C: Iñigo Jorajuria
6º A: Eva Pastor	6º B: Niko Brämer	6º C: Ane Elizalde

ESPEZIALISTAK

INGELESA:María Martin (E.I.), Rosa Blasco (1º-2º EP), Cristina Bonacasa (3º 4º E.P.), Nerea Antoñazas (1º-3º EP), Begoña Sarrías (5º-6º) eta Beñat Ayerra (Ingelesa-Euskera)
HEZIKETA FISIKOA: Judit Ibiricu, Manuel Molina, Alberto Gómez-Chacón eta Maider Uche
MUSIKA: Javier Morales
ERLIJIO KATOLIKOA: Asun Aranguren
PT/AL/Laguntza irakasleak: Amaya Legaz, Sheila Martinez, Chebet Siongok, Beatriz Bustos, Sara Duque, Lucía Lahoza (Minorías) eta Sara Bea (apoyos alemán)
ORIENTATZAILEAK: Mila Osés y Mariví López

ARAUAK

I. SARRERAK ETA IRTEERAK

a) Sarrerak goizeko 9: 00etan eta arratsaldeko 14:50ean izango dira, eta 5 minutu geroago ateak itxiko dira. Patioaz arduratzen diren irakasleek ikasle taldeen sarrera arautuko dute eta ikasturte hasieran esleitutako lekuan ilaran itxaro beharko dute ikasleek.
b) Ikasleak goizeko 9: 00ak arte eta arratsaldeko 14:50ak baino lehen ezingo dira eraikin barrura sartu. Ikasgeletara sartzeko ordua txirrina baten bidez adieraziko da, eta ataritik sartu beharko da.
c) Behin eskola-saioa hasita, ezin izango da ikastetxean sartu. Bakarrik aterapena justifikatzen duen eta guraso edo tutore legal batek sinatutako agiria ekarriz.
d) Ikasle bat eskola- ordutegitik 10 minutura berandu iristen bada justifikatutako arrazoirik gabe, atezaintzan itxaron beharko du heldu batekin hurrengo saiora arte, eta une horretan dagokion gelan sartuko da.

II. PUNTUALTASUNA ETA ESKOLARA BERTARATZEA

Puntualtasunaren eta egunero eskolara etortzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Justifikatutako arrazoi batengatik ikasle batek berandu iritsi behar badu, tutorearekin hitz egingo du, gelan ohiko ordutegitik kanpo sartzeko baimena eman diezaion. Gainera, ikasleak eskolara ez- etortzearen justifikazio- agiria emango dio tutoreari. Justifikaziorik gabeko atzerapen errepikakorren kasuan, tutorea familiarekin harremanetan jarriko da, eta, hala dagokionean, absentismo-protokoloa irekiko da.

III. TELEFONO ZENBAKIA, HELBIDEA ETA POSTA ELEKTRONIKOAREN ALDAKETA

Ikasturtean zehar helbidea, telefono- zenbakia edota posta elektronikoa aldatzen bada, ikastetxeko administratzaileari posta elektroniko baten bidez jakinarazi behar zaio: cppaderborn-administracion@educacion.navarra.es. Izan ere, familia batekin harremanetan jarri behar izanez gero datuak eguneratuak izateko.

URTEBETETZEEN OSPAKIZUNAK

Bere urtebetetzea ikasgelan ospatzea nahi duten ikasleek aldez aurretik erositako bizkotxo sinple bat ekartzea aukera hoberena dela pentsatzen dugu (osagaiak eta iraungitze-data zehazturiko etiketarekin). Denda ezberdinetan glutenik, laktosarik eta fruitu lehorrik gabeko erosteko aukerak daude. Horrela, elikadura-alergiak eta intolerantziak dituzten ikasleekin arazoak izatea saihesten dugu.

Familiek, aldez aurretik, posta elektronikoz jakinarazi beharko diote tutoreari, eta bizkotxoa eskuzapiekin ekarri beharko dute, ikasleen artean bizkotxoa zatika banatu ahal izateko (ez ekarri kristalezko ontzirik).

Urtebetetze opariak

Konparazioak eta konpromisoak saihesteko eta ospakizunei begira kontsumoa ez sustatzeko, **ikasleek EZINGO dute gainerako ikasleentzako oparirik ekarri.**

Urtebetetzeko gonbidapenak

Gonbidatu gabeko ikasleekin egoera desatseginak saihesteko, **gonbidapenak EZIN izango dira banatu** ez ikasgelan ezta sarrera eta irteerako ilaretan ere. Familiek beste modu batzuk erabili beharko dituzte horretarako.

Eskerrik asko laguntzeagatik.

IKASTETXEAREN ETA FAMILIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK

- **Eskolako agenda**, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera ikasle guztiei emango zaiena. Bertan, zereginak, hutsegiteen justifikazioa eta irakasleek familiekin egindako beste edozein ohar edo komunikazio jasoko dira.
- **Mezu elektronikoak.** Orokorrean EDUCA-ko mezularitzatik.
- **Informazio-oharrak edo idatzizko zirkularrak**, ikasleek etxera eramango dituztenak.
- **SMS mezuak,** kasu berezietan.
- **Ikastetxeko webgunea**, ikastetxearen eskola-bizitzaren berri jasotzeko https://cppaderborn.educacion.navarra.es/web/
- **SQRA inprimakia** (iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta eskerrak emateko), web-orrian eskuragarri, KONTAKTUA atalean.
- **EDUCA Familiak**, https://educa.navarra.es/, noten buletinetarako sarbidea emango dizuena.
- **Atezaintza**, aurrez aurre edo 848 433701 telefonora deituta

ESKOLAKO ORDUTEGIA

- Eskolak **lanaldi zatituko ordutegia** dauka**.** Irailean, ekainean, urteko ostiral guztietan eta **Abenduaren 22a, asteartea, eta martxoaren 24a, asteazkena** eskolaren ordutegia 9: 00etatik 13:00etara izango da, 50 minutuko lau saioetan banatuta, 30 minutuko atsedenaldiarekin. Urritik- maiatzera bitartean, goizeko ordutegia 9: 00etatik 12:50era izango da, 50 minutuko lau saioetan banatuta, 30 minutuko atsedenaldiarekin eta arratsaldez 14:50etik 16:30era.

NOTEN-BULETINAK EDUCAN ARGITARATZEA

1. EBALUAZIOA … …….…… Abenduaren 22a
2. EBALUAZIOA ……..…..…... Martxoaren 24a
3. EBALUAZIOA ETA AMAIERA ……. Ekainaren 22a

TUTOREEKIN BILERAK

Ikasturte honetan, ahal den heinean, 3 elkarrizketa pertsonal egingo dira tutoreen eta familien artean. Familiek hitzordua eska dezakezue eskolako web-gunearen bitartez FAMILIAK- Tutoretzarako hitzorduak atalean. Tutoreak hitzordua jaso ezean haiek deituko zaituztete.


ARRETA ORDUTEGIAK

ELKARRIZKETAK FAMILIEKIN: asteartean, 12:50etik 13:50era, hitzordua eskatuta (urritik-maiatzara).
ADMINISTRAZIOA: 9:00etatik 12:30era:cppaderborn-administracion@educacion.navarra.es
ZUZENDARITZA TALDEA: astelehenetik ostiralera, aurretik hitzordua eskatuta.
ORIENTAZIO ZERBITZUA: aurretik cppaderborn-orientacion@educacion.navarra.es helbidean hitzordua eskatuz.
JANTOKIA: aurretiko hitzordua eskatuz paderborn@ausolan.es helbidean.

Paderborn LEZKAIRU Colegio Público Ikastetxe Publikoa

ESKOLA EGUTEGIA

2026-2027



Irailеko eta ekaineko eskola-egunak, urritik maiatzera bitarteko ostiralak eta Abenduaren 22a, asteartea, eta martxoaren 24a (asteazkena) klaseak goizez izango dira, 9:00etatik 13:00etara.



HAMAIKETAKO OSASUNGARRIAK

Paderborn-Lezkairu HLHIPak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin elikadura osasungarrirako programa bat garatzen du. Nafarroako Gobernuaren fruta eta barazkien kontsumorako Eskola Programan parte hartzen du (Nekazaritza Ministerioak, Hezkuntza eta Osasun Ministerioak batera kudeatutako Europako Plana), elikadura osasungarria sustatzen duen eta jarduera fisikoa sustatzen duen osasun-estrategia gisa.

Ikastetxea Hezkuntza Sailaren "Osasuna Sustatzeko Sareko Eskolak" programaren parte da. 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuen artean ezarritako ikastetxearen proiektu integral gisa ezartzen baita.

Ekimen hori 511/2017 Dekretuan oinarritzen da. Dekretu horren bidez, fruta kontsumitzeko programarekin Europar Batasunaren araudia garatzen da Espainian. Era berean, hezkuntza-legediak haurren gizentasuna eta diabetes gaixotasuna prebenitzeko programak ezartzen laguntzen du.

HAMAIKETAKO OSASUNGARRIEN PROPOSAMENA PADERBORN-en

- Astean zehar, ikasleek **fruta, barazkiak, ogitartekoak eta etxean eskuz prestatutako produktuak ekarriko** dituzte. Opil industrialak eta produktu ultra-prozesatuak ekartzea saihestu egin beharko da.
- Edateko, ikasleek metalezko edo plastiko gogorreko (ez kristalezko) ur botila bat ekarriko dute. Zentroak eta patioek botila horiek betetzeko guneak dituzte.

IRAKASTEKO ETA IKASTEKO GURE MODUA



EDUCA ETA ESKOLAKO IKASLEEN HEZKUNTZA- POSTA

Educa Hezkuntza Sailaren sistema informatikoa da, eskolako informazioa kudeatzeko erabilia. Hezkuntza-prozesuan parte hartzen dutenen arteko kudeaketa, administrazioa eta komunikazioa errazteko balio du, hala nola: irakasleak, familiak, ikasleak, ikastetxea eta Hezkuntza Saileko talde teknikoak.

Hemendik sar daiteke Educa atarira: https://educa.navarra.es/

EDUCAPORTAL

Ikasleen eta familien sarbidea eta erabilgarritasunak desberdinak dira Educa atarian.
Baina bietan ikasleen kalifikazioak, bizikidetza-txostenak eta ikasleen bizitza akademikoko beste informazio garrantzitsu batzuk kontsulta daiteke.

Educa ataritik, gainera, familiek irakasleekin harremanetan jartzeko, eskola-ordutegia kontsultatzeko eta beren seme edo alabaren pasahitza aldatzeko aukera izango dute.

Oraindik sarbiderik ez duten familiek hurrengo helbidean lortu dezakete: Accedo por primera vez / No recuerdo la contraseña

Ikastetxearen webgunean eta Hezkuntza Sailaren IKT zerbitzuen orrian Educaren erabileran trebatzeko eskuliburuak eta tutoretza-bideoak daude behar izanez gero.

IKASLEEN HEZKUNTZA-POSTA ETA CLASSROOM-a

Gure ikastetxean **Google Classroom** izeneko ikaskuntzarako plataforma batekin lan egiten dugu. Gela birtualean sartzeko urratsak gure webgunean argitaratuak daude, eta inprimatuta ematen zaizkie ikastetxean matrikulatu berri diren ikasleei. Eskolan Ikasleen hezkuntzako-posta korporatiboak erabiltzen ditugu, @educacion.navarra.es motakoak.

Gainera, ikasleek **aleman hizkuntzako zientzia-liburu digitalak** eskura izango ditzakete zentroaren webgunean. Modu inprimatuan ere entregatuko zaie.

Laguntza gehiago behar al duzu? Idatzi mezu bat helbide honetara: cppaderborn-secretaria@educacion.navarra.es